




2024 06 16



MUGAEZIN

ARABA EUSKARAZ

GEHIGARRIA **GARA**

Euskara mugagabea dela aldarrikatuko dute Olarizun

Arabak euskara eta euskarak Araba behar du. Elkarrenganako lotura hori estutzen jarraitzeko xedez dator Araba Euskaraz, aurten ere herrialdeko zortzi ikastolek Olarizun antolatuta, oraingoan "Mugaezin" leloarekin. Ekitaldian lortutako etekinak Oiongo San Bizente ikastola laguntzera bideratuko dituzte.

ERREPORTAJEA

Mikel AGINAGALDE | GASTEIZ

Oraingoan ere Euskal Herri osoetik etorritako mila euskaltzale bilduko dira Olarizuko landa eremuan Araba euskalduna dela ozen adierazteko eta ikastolek euskara eta euskal kulturaren alde egiten duten lana aldarrikatzeke.


Ekitaldian lortutako etekin ekonomikoa Oiongo San Bizente ikastola laguntzera bideratuko dutela iragarri dute antolatzaileek. Eskola horretako hezkuntza proiektua ezagutzera ematearekin batera, Oionen eta Arabar Errioxan euskararen erabilera aldarrikatzeke eta bultzatzeko eta erabilera eremuak zabaltzeko baliatuko dute. "Mugaezin" da, hain zuzen, aurtengo leloa, «mugarik gabe eta mugaezin irudikatzen dugulako gure hizkuntza».

Herria eta hizkuntza loturik dauden gisara, Arabako ikastolen arteko batasuna ere estua da. Eta hori garbi geratu da igande honetako hitzordua prestatzeko tenorean ere. Izan

ere, aurtengo edizioa euskal lurralde horretako zortzi ikastolen artean antolatu dute, elkarlana eta auzolana ardatz izanik une oro.

Hala, azken bi edizioetan izandako dinamikari jarraipena eman nahi izan diote. Festaren prestaketa lanak zortzi ikastola horietan sortutako batzordeen artean banatu dituzte, eta bakoitzak zeregin ezberdinak hartu ditu bere gain; esaterako, material salmenta, Tanta txartelen salmenta, babesle, laguntzaileen eta publizitatearen bilaketa, segurtasun aurreikuspen lanak, urte osoko ekimenen antolaketa, eguneko egitarauaren taxuketa, muntaketa lanen aurreikuspena, eta abar.

Izan ere, antolatzaileen arabera, ezinbestekoa da pertsona, talde eta erakunde ezberdinen ekarpen boluntario eta solidarioa horrelako festa handi bat gauzatu ahal izateko: «Guztion lana, guztion konpromisoa, ikastolen mugimenduarekiko, Arabarekiko, euskararekiko eta euskal kulturarekiko. Guztion lana eta esfortzua, ikastolen proiektuak aurrera ateratzeko».



Arabako ikastolek ikasleen Erronkak ere Olarizun egingo dira. Irudian, Iazko lehlaketa. Jaizki FONTANEDA | FOKU

URTE OSOKO OSPAKIZUNA

Era berean, azpimarratu dute ere, igande honetako urte osoan egindako lan, ekimen eta ospakizunei jarritako ginga besterik ez da. Hortaz, argi adierazi nahi izan dute Araba Euskaraz ez dela soilik egun bakar bateko ekitaldia, urte osoan garatutako ekintza multzoa baizik. Hala, Araba Euskaraz eguna baino, Araba Euskaraz urtea esatea hobesten dute antolatzaileek.

Ildo horretatik, hainbat eta hainbat izan dira han eta hemen eta ikasturte guztian zehar egindako ekimenak. Aipagarriak izan dira, besteak beste, iragan urtarrean zein maiatzean Gasteizko Eu-

ropa Biltzar Jauregian eta Amurrioko Antzokian, hurrenez hurren, ospatutako Golazen-en kontzertuak eta martxoan Oionen Porrotx eta Marimototsek eskainitako emanaldia.

Baina ez hori bakarrik, Araban zesta-punta sustatzen jarraitzeko asmoz, Araba Euskarazek, Arabako Euskal Pilota Elkartearekin eta Gasteiz Jai Alai klubarekin kolaboratuz, aurtengo zesta-punta profesionaleko zirkuiturako txapelketa puntuagarria antolatu du iragan apirillean zehar, eta esan beharra dago harrera bikaina izan duela publikoaren partetik. Beraz, etxeko lanak eginda eta mo-



Lizarralde soinua

S.L.

**AUDIO PROFESIONALA
ETA MEGAFONIA.**

www.lizarraldesoinua-txalaparta.eus
945 226 977 • GASTEIZ

zerbitzua
enkatatzen



AMETS

WWW.AMETSSEL.COM

DEIHEZAGUZTU: 94 622 24 53

DOITASUNEZKO MEKANIZATUAH

AURTER
OMENDIKO
DUTEN
ERAKUNDEA
ARABAR
ERRIOXAN
HELDUEN
EUSKALDUNTZEAN
LAN EGINEZ
URTEAK
DARAMATZAN IKA
EUSKALTEGIA DA.

MENDE ERDIZ ARABAKO ERRIOXA EUSKALDUNDUZ

Gaur egun erabat erroturik eta finkaturik dagoen San Bizente ikastolaren lehen hazia iragan mendearen azken laurdenean hasi zen ernaltzen, 1976an, hain justu ere. Urte hartan Oiongo eta Arabako Errioxako guraso talde bat aurretiaz galduriko euskara eta euskal sustraiak berreskuratzeko ahalegin betean murgildu zen eta ikastolaren proiektua garatzeari ekin zion buru-belarri.

Garai zail eta korapilatsuak izanda ere, ekinaren ekinaz lortu zuten ikastola martxan jartzea. Hastapenean, 11 ikasle soilik eskolatu ziren, baina kopuru hori etengabe hazi zen ondorengo urteetan. Hala, 1987ko ikasturtean 135 ikasle hartu zituen ikastolak. Gaur egun, orotara, 0-16 urte bitarteko 304 ikasle eta 32 irakasle dhardute Oiongo ikastolan.

Esan beharra dago San Bizente ikastola gurasoen kooperatiba dela eta guztiaren gainetik helburu zehatz bat daukala, hots, bazkideen seme-alaben eta senideen euskarazko irakaskuntza eta hezkuntza sustatzea eskualdeko beharren arabera mailetan eta modalitateetan.



Oiongo ikastolako haurrak, 2015ean ateratako argazkian. Juanan RUIZ | FOKU

Aipatzekoa da, bestalde, Errioxan bizi diren hainbat familiatako neska-mutikoak Oionera joaten direla, bertako ikastolan D ereduan, euskaraz, hezi ahal izateko.

Ikastolaren sorreratik gaurdaino, San Bizente ikastolak garai bakoitzera egokitutako oinarri pedagogiko eta metodologikoak ezarri izan ditu. Egun proiektu sendo baten oinarriak

garatuak ditu, eta horiek dira, besteak beste, hezkuntza ikuspegi konstruktibista, hiru eleiduna, bizikidetzaz, integrazioaren pedagogia, ikasle guztiaren orientazioa eta aniztasunarekiko arreta. Oinarriak finkatuta eta eskarmentua lagun, etorkizun oparoa aurreikus dakioko Oiongo San Bizente ikastolari. M.A.

torrak ederki berotuta heldu dira igande honetako hitzordura, eta adin orori zuzendutako ikuskizun, tailer eta jolasak prestatu dituzte haur, nerabe eta gazteek familian gozatu ahal izateko, egitarau ezin aproposagoarekin.

LAUTADA, MENDIA, ERREKA
Euskara eta euskal kulturaz gozatu ahal izateko hiru gune eta makina bat ekimen pres-

tatu dituzte antolatzaileek Olarizuko landa eremuan. Lehen guneari Lautada izena eman diote, eta bertan, Armentia ikastolaren eskutik, Golazen, Mugaezin Txoual, karaokea, plaza-dantzak eta Zumba izango dira. Era berean, tailer eta jolasei dagokienez, Berriaren Txokoa, Argitxoren Txokoa, Eroski Elikadura Tailerra eta Makusi gunea dira nabarmentzekoak.

Mendia izeneko gunea, aldiriz, euskal dantzen agertokia izango da, baina horrez gain, Arabako Bertsolari Elkarteak Bertsotan izeneko saioa egingo du eta Miroltz, Akerbeltz eta Eh, Mertxel, taldeen kontzertuak ere izango dira. Era berean, tailerrak eta jolasak izango dira; horien artean, Haur Basoa eta Kaikuren Abestu, Dantzatu eta Sor-tu tailerra.

Azken gunean, hau da, Erreka gunean ere egongo da zerekin gozatu; bertan izango dira, besteak beste, Maria Arandiarren Magia eta Mirariak Familian ikuskizuna eta Ibil Bedi, Janus Lester, Burutik eta DJ Malandroren kontzertuak, eta baita bizikleta kukaña eta Euskaltelen puzgarriak ere.

Egun osoan, eta gune bate-tik bestera, gaiteroak, Gasteiz Kantuz, Arai erraldoien kon-

partsa eta Alt Maresmeko Castellers-ak ibiliko dira.

Eta Arabako ikastoletako ikasleen Erronkak ere Olarizun egingo dira: Lehen Hezkuntzako ikasleak Mendia gunean arituko dira lehia sanoan, eta DBHkoak, berriz, gune guztiaren.

Olarizutik kanpo, Adurtza pilotalekuan, Arabako Herri Arteko Euskal Pilota txapelketako finalak jokatu dira.

ARABAKO SAGAR DOTE GIAK

ITURRIETA SAGARDOTEGIA
Aramaio
www.iturrieta.eus
t 945 445 385
t 685 72 15 93

Servicio de autobús



TREBIÑU

sagardotegia

TREBIÑU SAGARDOTEGIA
Askartza (Trebinu)
www.trebinu.com
t 945 24 48 52
t 657 73 65 99



Kuartango

SAGARDOTEGIA

KUARTANGO SAGARDOTEGIA
Zuhatzu-Kuartango
www.kuartangosagardotegia.com
t 699 747 730
t 945 362 683

ARTURO LOPEZ DE LA CALLE Oiongo San Bizente ikastolako zuzendaria

Urte osoan egindako lan eskergak eragindako nekearekin, baina gauzak ongi egin izanaren sentsazio atseginarekin bizi du Arturo Lopez de la Callek (Guardia, 1977) Araba Euskaraz festa handiaren ataria. Oiongo San Bizente ikastolak 45 urte eman ditu Arabar Errioxako eta inguruetakoz gazteak euskalduntzen, eta proiektua bizirik dagoela nabarmendu du, inoiz baino gehiago.

«Ikastolen mugimendua guztiz errotuta dago Arabako Errioxan»

M.A. | GASTEIZ

Pasa den ikasturteko maiatzean hasi ziren gaurko-eguna prestatzen, eta denbora horretan galtzak bete lan izan dute guztia behar bezala atontzeko. Ekitaldiaren inguruko xehetasunak eta beste hainbat kontu azaldu dizkigu.

Auzolana da gisa horretako jaialdi bat antolatzeko behar den osagai nagusietakoa. Nolakoa izan da ikastolako komunitatearen inplikazioa prestaketa lanetan?

Egia esan, oro har, oso positiboki baloratzen dugu jendearen parte hartzea. Hasieratik lan taldeak antolatu ziren eta familien erantzuna oso ona izan da. Esan bezala, azpimarratzekoa da auzolana dela gure ikastolaren identitate zeinu bat.

Ekitaldi eta ekimen andana antolatu dizue urte osoan zehar, bai ta gaurko egunean ere. Horietako zein nabarmenduko zenituzke?

Bai, hala da. Gaurkorako, aldiz, denera, hiru gune antolatu ditugu Olarizuko landa eremuan: Lautada gunea, Mendia gunea eta Erreka gunea. Horietan Go!Azen karaokea, Akerbeltz, Eh Mertxe, Janus Lester eta DJ Malandro izango dira, besteak beste, ekitaldi aipagarri batzuk. Baina ez horiek bakarrik, dantz plaza, tallerrak, erronka frogak, kalejirak, eta gauza gehiago ere izango ditugu.



ARGAZKIAK: JAIZKI FONTANEDA | FOKU

Eta festa pentsatu eta antolatzeko orduan, zein alderdiri eman nahi izan diozue garrantzi berezia?

Guztiantzako jai izatea nahi dugu, gazteentzat, helduentzat


eta adinekoentzat. Programa anitza eta aukeraz bete denontzat, alegia. Musika tradizionalarekin eta musika gaurkotuagorekin. Eta beti giro euskaldun, osasuntsu eta errespetuzkoan.


Festaz gainera, aldarrikapena ere egin nahi duzue. Zer da, zehazki aldarrikatu nahi duzuen?

Euskal Herriko hego-mendebaldean gaudela, muga, bai-

na euskaraz bizi nahi dugula, euskaraz lan egin nahi dugula eta gure seme-alabak euskaraz hezi nahi ditugula.

45 urte eman ditugu Arabar Errioxako eta ingurueta-




 Servicio oficial para el Alto Nervion
 Nerbioi Alluan Zerbitzu ofiziala


Eska, S.L.

Industria-Eda. 4-1. LAUDIO Arara
 Tf. 94 672 81 01

ko gazteak euskalduntzen, eta gure proiektua bizirik dago, inoiz baino gehiago, inoiz baino ikasle gehiagorekin eta familien laguntza eta babesarekin.

Logoaren bidez, aldiz, zer adierazi nahi izan duzue? Logoa infinituaren ideian inspiratuta dago eta Arabako lurraldeko zortzi ikastolen arteko lankidetzaren sinbolizatzen du. Logotipoak betikotasuna eta etengabeko mugimendua adierazten duen forma espirala aurkezten du, etengabeko bidaiaren eta denboraren jarioaren ideia gogora ekarri. Ekilore-petaloak, espirala harmoniatsu konbinatzen baita espirala inguratzen duten zortzi petaloekin. Petalo horietako bakoitzak Arabako zortzi ikastoletako bat irudikatzen du. Petaloak hazkunduaren, aniztasunaren eta lankidetzaren sinbolo dira, elkarrekin osotasun harmoniatsua eta bateratua osatzen baitute.

Bestalde, logotipoan nagusi den kolorea horia da, eguzki-lorearen ezaugarria dena. Kolore honek argia, energia eta bizitasuna sinbolizatzen ditu. Gainera, ekilorea Arabako paisaiaren landare emblematikoa bat da, eta komunitatearekin eta lurraldearekin lotura berezia ezartzen du.

Jakina denez, azken ekitaldiak Arabako zortzi ikastolen artean antolatu dituzue. Zein izan da lankidetzaren horren emaitza? Zein ondorio atera dituzue?

Ondorioak eta emaitzak positiiboak izan dira. Batez ere antolatzerakoan errazagoa da guztien artean egitea eta lanak banatzea. Gainera, zortzi ikas-

**DUELA 40 URTE
UME ERDALDUNAK
GINENAK GAUR
EUSKALDUNAK
GARA, EUSKARAZ
BIZI ETA
EUSKARAZ LAN
EGITEN DUGUN
EUSKALDUNAK.
ETA HORREK
ELIKATZEN GAITU
ETA INDARRAK
EMATEN DIZKIGU
AURRERA
JARRAITZEKO.**

tolen inplikazio maila altuagoa da, eta Araba Euskaraz urtero gertutasunetik bizitzeko aukera ematen du.

Bestalde, nolakoa izan da "Non eta Muga" egitasmoa? Zein balorazio egiten duzue ekimen horren inguruan? Beharrezkoa. Euskal Herriko ikastola guztien bideragarritasunaren gaiari irtenbidea eman behar zaio. Horregatik, muga dauden ikastolen arte-



ko ekitaldi honetan parte hartu nahi izan dugu.

Jaialditik ateratako etekin ekonomikoa San Bizente ikastolarentzat izango da. Zein behar nagusi ditu San Bizente ikastolak?

Asko dira ditugun beharrak. 2015ean, gure azkenengo Araba Euskaraz ateratako etekinekin jangela eraiki genuen. Familia guztien artean ordaintzen ari gara jangela erai-

kitzeko hartutako mailegua, eta obra hartan egindako inbertsioa ordaintzen amaitu nahi dugu.

Nola ikusten duzue Arabako ikastolen egoera gaur egun?

Ez da momentu erraza. Jaiotza tasa asko jaitsi da eta horrek eragina du, noski. Baina familien babesa eta laguntza izaten jarraitzen dugu Araban. Ikastoletako kide guztiok proiektu honetan sinesten dugu eta

egunero egiten dugu lan ilusto eta gogo handiz.

Zeintzuk dira San Bizente ikastolaren etorkizuneko erronka nagusiak?

Gure proiektuarekin aurrera jarraitzea. Gure herriko eta inguruko herrietako gazteei hezkuntza euskalduna eskaintzen jarraitzea, hain zuzen. Hala nahi duten familia guztiei gure ikastolan ikasteko aukera eskaintzea, hezkuntza eredu propio batekin eta ikasle guztiok merezi duten mailako zerbitzuekin.

Azkenik, Arabako Errioxan, euskaraz ez du egoera samurra izan azken hamartadatan. Zein izan da urteotako bilakaera eta nolakoa da hizkuntzaren osasuna gaur egun? Gure eskualdean, ez da erraza, baina euskara entzuten da kaleetan, inoiz baino gehiago. Duela 40 urte ume erdaldunak ginenak gaur euskaldunak gara, euskaraz bizi eta euskaraz lan egiten dugun euskaldunak. Eta horrek elikatzen gaitu eta indarrak ematen dizkigu aurrera jarraitzeko.

Guraso, irakasle eta ikasle aitzindariak abiatutako ikastolen mugimendua guztiz errotuta dago Arabako Errioxan. Urteotan guztiotan lortu dugu eskualde honetan euskaldun eta ia euskaldunak %4 izatetik, %40tik gora izatea. Eta gure gogo, borondate eta grina mugazinarekin lortu dugu Arabako Errioxa euskalduna, Euskal Herri euskaldunean.

Arabaren ezagutza maila altua da, batez ere gazteen artean, baina gure eskualdean gisan, erabilera maila oraindik ez da orokorra. Indarra egin behar da zentzu horretan eta horregatik aldarrikatzen dugu ikastolak egiten dugun lana.

**ETORKIZUNA
EUSKARAZ,
JARRAITZEN DUGU.**

Gora Araba euskalduna!

ehbitatu

Aitortza eta esker ona Euskal Herriko **periferian** diharduten ikastolei

Euskal Herriko Ikastolen Elkarteak aitortza egin nahi izan die Euskal Herriko periferian, beste lurraldeekiko mugan lanean ari diren ikastolei, tartean Olongo San Bizente ikastolari.

M.A. | GASTEIZ

Ikastolak Herriari egitasmoan, "Non eta Mugan" ekitaldi hungigarrria egin zuten iragan den martxoan Beskoitzen (Lapurdi). Haren bidez Euskal Herriko Ikastolen Elkarteak aitortza egin nahi izan die Euskal Herriko periferian, beste lurraldeekiko mugan lanean ari diren ikastolei, euskara eta euskal kultura inguru horietan bultzatzeko egiten duten ahalegin eta ekin apartagatik.

Omenaldia jaso zutenen artean dago Olongo San Bizente

**OMENALDIA JASO
ZUTENEN ARTEAN
DAUDE OLONGO
SAN BIZENTE
IKASTOLA,
ZANGOZAKOA,
Lodosakoa,
VIANAKOA,
TUTERAKOA,
BALMASEDAKOA,
SOHÜTAKOA ETA
BESKOITZEKOA
BERA ERE.**

ikastola, baina baita Zangozako ikastola, Lodosako Ibaialde Ikastola, Vianako Erentzun Ikastola, Tuterako Argia Ikastola, Balmasedako Zubi Zaharra Ikastola, Sohütako Eperra Ikastola eta Beskoitzeko Ikastola bera ere.

Ekitaldi hartan, Ikastolen Elkarteko lehendakari Nekane Artolak azaldu zuen aipatu ikastola horiek oztupo betetako ibilbidea egin behar izan dutela gaurdaino, bide oso aberasgarria ere izan dena. Ibilbide horrengatik esker ona adierazi eta aitortza

egin nahi izan die elkarteak. Izan ere, lege babes eskasarengatik edo egoera soziolinguistikoko konplexuarengatik, euskararen egoera apala da

ARTE ESZENIKOAK


Armenia ikastola
GOIAZEN KARAOKEA
MUGAEZIN TXOUAI
Arabako Ikastolako ikasteak
DANTZA PLAZA
ZUNBA

BERRIAREN TXOKOA
ARGITXOREN TXOKOA

EROSKI ELIKADURA TAILERRA
MAKUSI GUNEA

ERROKKA

LH
Mendia gunean
DBH
Gune guztietan




Iragan den martxoan Beskoitzeko ikastolan egindako «Non eta Mugan» ekitaldia. Guillaume FAUVEAU

Euskal Herriko txoko ugarietan. Halatan, Euskal Herriko periferian diharduten ikastolei berriki egindako aitortza horren helburua da, euskara eta euskal kultura lantzeari dagokionez, leku horietan ari diren ikastolak ezinbesteko eragileak direla aldarrikatzea, baina baita ikastola horien berebiziko esanguraz ohartaraztea ere.

Egoera larria Beskoitzen
Aitortza ekitaldia, esan bezala, Beskoitzen ospatu zen eta bertako ikastolako kideei zuzendutako babes erakustaldia izan zen. Lapurdiko herri horretako ikastola egoera larrian dago gaur egun. Udala traba eta oztupo franko jartzen ari delako azkenaldian. Horren adibide da, konparazioz, 2023ko irailan Fabienne Ayensa auzapezak ikastola berria eraikitzeko baimena ukatu izana.

Ikastolak salatu duenez, proiektu horren lehen unetik aurrera egiteko zailtasunak eta negoziatutako irtenbide bat aurkitzeko ezintasuna izan omen dute une oro, eta ikastola horretako ikasleek eraikin prefabrikatuetan jarraitzen dute eskolak jasotzen.

Orain hilabete gutxi egindako adierazpenetan Beskoitzeko ikastolako ordezkariak nabarmendu zuten administrazioek, bereziki Herriko Etxeak, euskara eta ikastola ito nahi dituela. Horrenbes-



2. mendia gunea

11:00 DANTZA MUGAEZINI
Euskal dantzen topaketa
12:30 BERTSOTANI Arabako Bertsozale Elkartea
14:00 MIROTZ (Gazte Talent)
15:30 .EH, MERTXEI
17:00 AKERBELTZ

Tallerrak eta jolaskak
11:00 - 14:00 HAURREN BASOA
11:00 - 19:00 ABESTU, DANTZATU
ETA SORTU KAIKUREKIN

3. erreka gunea

11:30 MARIA ARANDIA
"Magia eta mirariak familian"
(Berriaren eskutik)
13:00 IBIL BEDI
14:30 JANUS LESTER
16:00 BURUTIK
17:30 DJ MALANDRO

Tallerrak eta jolaskak
11:00 - 14:00 HAZTEN ETA JOLASTEN
Araba Euskaraz murala eta pultserak
Egun osoan zehar:
EUSKALTEL KUKAÑA BIZIKLETAZ
PUZGARRIAK

tez, Beskoitzeko ikastolako lehendakari den Cyril Fesquinek esan zuen negoziazioak etenda daudela eta borondatea falta dela alkatearen eta Udal gobernua aldetik, egoerari aterabide egoki bat emateko. Gainera, ikastolako kideak ohartarazi dituzte orain arteko ikastolaren eremuko lurrak utzi beharko dituztela ikasturtea bukatu bezain laster, Herriko Etxeak hala erabakita.

Inplikazioa eta ekarpena Kontuak horrela, Oiongo San Bizente ikastolako ordezkariak ez ziren Beskoitzen ospatutako ekitaldian falta izan, eta haien ekarpena egin eta bertako ikastolako kideei sostengua adierazi nahi izan zieten. Arabako Errioxako Ikastola horretako zuzendari

BESKOITZEKO IKASTOLA OHARTARAZI DUTE ORAIN ARTEKO IKASTOLAREN EREMUKO LURRAK UTZI BEHARKO DITUZTELA IKASTURTEA BUKATU BEZAIN LASTER, HERRIKO ETXEAK HALA ERABAKITA.

Arturo Lopez de la Callek azpimarratu zuen gisa horretako ekitaldiak guztiz beharrezkoak direla. Horrekin batera, adierazi zuen Euskal Herriko ikastola guztien bideragarritasunaren galari irtenbidea eman behar zaiola, eta horretarako beharrezkoa dela eragile horien guztien inplikazioa eta ekarpena.

Azkenik, aurten Gipuzkoako ikastolen aldeko jai antolatuko duen Azeptitiko Ikastolako kideak ere izan ziren ekitaldi horretan eta Kilometroak 2024ko logoa irudikatzen duen eskuz egindako eguzki-lorea oparitu zieten. Horren bidez, landare horren hosto guztiak desberdinak eta denak beharrezkoak direla eta ikastola horietatik euskararen haziak aterako direla adierazi nahi izan zuten.



Beskoitzeko ikasleek eraldin prefabrikatuetan jarraritzen dute. G.FAUVEAU




EUSKAL HERRIA
esnea

www.euskalherriaesnea.com

araba euskaraz 24

OLARIZU

ekainak 16



VI 10

FUNDACIÓN · FUNDAZIOA

Zurekin bat